



EUSKADIKO  
ORKESTRA  
22—23

**ROBERT TREVIÑO**

Zuzendari titularra ° Director titular

ADAMS · BEETHOVEN · BRUCKNER · CARPENTER · CHOPIN · DVORAK · ELGAR · FALLA  
GERENABARRENA · KORNGOLD · LAZKANO · MAHLER · MUSSORGSKY · ORFF · PROKOFIEV  
RACHMANINOFF · STRAUSS · SHOSTAKOVICH · TCHAIKOVSKY · VEPRİK · WAGNER · WALKER

# EUSKADIKO ORKESTRA

## 2022-2023 Denboraldia: Tragedia gainditzea

- Euskadiko Orkestraren Denboraldi berriak tragediatik hura gainditzera garamatza musikaren eta haren adibide handien bitartez: Xostakovitxen gordintasuna, Txaikovskiren mamuak, Brucknerren sinfoniarik handiena edota Carl Orffen lanik ospetsuena.
- Orkestrak pandemian bertan behera utzitako egitasmoak berreskuratuko ditu; Carpenterren 'Mamu kantak' lanaren estreinaldia esaterako, hiru orkestra britainiarrekin batera agindutako lana.
- Euskal Herriko sorkuntzak ere hartuko du garrantzia Ramon Lazkanori agindutako 'Mare Marginis' lanaren estreinaldiari esker, bai eta 'Elkano: Mundubira musika bidelagun' proiektuaren amaierarekin –Zuriñe F. Gerenabarrenaren 'Lorratz' lanaren bitartez–, munduari gure konpositoreen iruditeriaren bitartez bira egin ondoren.
- Euskadiko Orkestrak oso gutxitan interpretatutako lan bitxiak, entzutea merezi dutenak, ezagutaraztea bultzatuko du, orobat, hala nola Adamsen 'Doctor Atomic Symphony' lana, bai eta Euskal Herrian oso ezagunak ez diren Veprik eta Dzenitis musikagileen lanak ere, besteak beste.
- Asmo hori bete nahian, sona handiko artistak egongo dira gurekin: Alexei Volodin, Alena Baeva, Yulianna Avdeeva, Dinis Sousa, Roderick Cox eta Frank Peter Zimmermann, adibidez. Bai eta gure lurraldeko artista handi batzuk ere, hala nola Donostiako Orfeoia –haren 125. urteurrenean–, Easo Gazte eta Easo Eskolania, Carlos Mena eta Jone Martínez sopranoa.
- Robert Treviñok Euskadiko Orkestraren zuzendari titular izaten jarraituko du.

# EUSKADIKO ORKESTRA

## ABONU DENBORALDIKO PROGRAMAZIOA

Arte-sorkuntzarako inspirazio-iturri arras handia izan da beti Historiaren bilakabidea. Baita musikarako ere; arimaren ispilu bihurtu baita maiz, zoritxarrarena eta **tragedia** gordinenarena, baina baita hura **gainditzearen** ispilu ere. Eta premisa horien gainean diseinatu eta eraiki da, hain zuzen ere, **Kontzertu Denboraldi berriaren ardatza**. Ezbeharrean oinarrituta nork bere burua hobetzearen gaineko kontakizunaz mintzo gara, eta hor musikak, arte gorena izanik, adibide bikainak eman ditu historian zehar; horietako batzuk izango ditugu gurekin 2022-2023 Denboraldian. Hizpide ditugu, hain zuzen ere, Xostakovitxek bere noten bitartez adierazten duen gordintasun – batzuetan ezkutatu– hori (*8. Sinfonia*), Txaikovskiren mamuak (*4. Sinfonia*), Brucknerren sinfoniarik handiena (*8. Sinfonia*) eta mundu osoan oraindik aditzen den Carl Orffen lanik ospetsuena (*Carmina Burana*) – Donostiako Orfeoiarekin batera haren 125. urteurrenean–.

Euskadiko Orkestraren 2022/2023 abonua-denboraldia **irailaren 23an** hasiko da **Gasteizen**, eta **2023ko ekainaren 9an** amaituko da **Donostian**. Guztira 10 abonua-programa izango dira, Gasteizen (10), Bilboren (10), Donostiaren (10x2) eta Iruñearen (10) artean banatuta; orotara 50 kontzertu egongo dira, hortaz. Abonua-denboraldiari dagokionez bakarrik. Azaldu berri dugunari jarraikiz, Xostakovitxek *8. Sinfonian* azaleratzen duen tragediak emango dio abiapuntua denboraldiari. Lan hori 1943. urtean sinatu zuen, eta Bigarren Mundu Gerran izandako milioika hildakoek eragin zioten zirraren emaitza da. Xostakovitxek emango dio amaiera, halaber, *15. Sinfoniaren* bidez; tragedia gainditzea begiztatzen da bertan, baikortasuna baitario 1971n idatzitako lanari.

Denboraldi honetan errealismo- eta ezbehar-dosi eskergak daude, baita, halere, haien gainditzea, baikortasuna, energia eta grina ere.

### **Robert Treviñok jarraituko du zuzendari titular**

2021-2022 Denboraldia amaituta, **Robert Treviñok** zuzendari titular gisako bosgarren eta azken denboraldia amaitu du. Orkestrak azken urteotan lortu dituen emaitza artistiko handiak eta kritikaren babes orokorra direla-eta, **haren titulartasunari jarraipena eman eta hura luzatzea** erabaki da, hura amaitzeko egunik zehaztu gabe.

Orkestraren zuzendari titularrak bere gain hartuko ditu Denboraldiko hamar programetatik lau. Denboraldiko lanik sinbolikoenetako batzuk zuzenduko ditu, Xostakovitxek *8. Sinfonia* eta *15. Sinfonia* kasu, Denboraldiari hasiera eta amaiera ematekoak, hurrenez hurren. Baita Brucknerren *Zortzigarrena*, katedral sinfonikoetan nagusizat hartua, eta



# EUSKADIKO ORKESTRA

Mahlerren *Bosgarrena*, beste gainditze-istorio bat bihurtua, ere. Hura arduratuko da, orobat, Zuriñe F. Gerenabarrena (*Lorratz*) eta Ramon Lazkano (*Mare Marginis*) euskal musikagileen estreinaldiez; Alexandre Tharaud pianojolea bakarlari arituko da bigarreanean.

## Estreinaldi partekatuak eta erreperitorio berria

Gary Carpenterren *Mamu kantak* (*Ghost Songs*) Erresuma Batuko hiru orkestrak (Royal Scottish National Orchestra, City of Birmingham Symphony Orchestra eta Royal Liverpool Philharmonic Orchestra) eta Euskadiko Orkestrak agindutako lan bat da, azken biek Robert Treviñoren bitartez duten harremanaren emaitza. Partiturak Marion Angus poetaren testu batzuk ditu, eta, euskaratuta, EASO Gaztek eta EASO Eskolaniak kantatuko dituzte.

*Mare Marginis* da Ramon Lazkanok ondutako pianorako kontzertuaren izena. Radio Francek, Euskadiko Orkestrak eta WDR orkestrak (Koloniako Irratiaren Orkestra) batera agindutako lan bat da. Lan hori Radio Franceren 2023ko Présences jaialdian estreinatuko da otsailaren 11n, François-Xavier Rotheke zuzendutako Frantziako Orkestra Nazionalarekin. Astebete geroago Euskadiko Orkestrak joko du eta, maiatzaren 20an, beriz, WDR orkestrak aurkeztuko du.

Denboraldiko hirugarren erabateko estreinaldia Zuriñe F. Gerenabarrena gasteztarraren *Lorratz* lana izango da, *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektuaren barruan. Mikel Chamizoren, Mikel Urquizaren, Joel Merahren eta Teresa Catalanen ondotik, Gerenabarrenak emango dio amaiera lehen mundubiraren oroitzapena gure musikagileen iruditeriaren bitartez egiteko ekimenari.

Estreinaldiez gain, orkestrak lehen aldiz interpretatuko ditu hamar lan gehiago, eta erreperitoriora gehituko ditu horrenbestez. Entzuleek aurkikuntza handia ere egin ahal izango dute interpretazio horiei esker. Haietako bi nabarmentzen dira oroz gain: batetik, *Doctor Atomic Symphony* (John Adams), zeinak begirada etsia erakusten baitu Mexiko Berriko Los Alamos en Bigarren Mundu Gerran lehen bonba atomikoaren lehenengo proba prestatzen ari zirenek pairatutako estresaren, larritasunaren eta minaren aurrean, eta, bestetik, *2 poèmes* (Alexander Veprík). Musikagile errusiar hori Gulagera bidali zuten 1950etik 1954ra arte nazionalista judua izatea egotzita; askatu zutenean, hiltzear zegoelarik, bi poema horiek idatzi zituen.

Erreperitorio berri horrekin batera orkestrak honako lan hauek ere joko ditu: *Biolinerako 2. kontzertua* (Xostakovitx), Alena Baevak interpretatuta; *Biolinerako kontzertua* (Elgar), Frank Peter Zimmermann biolinjolearekin; *Biolontxelorako kontzertua* (Korngold), Anne Gastinel biolontxelistarekin; eta *Pianorako 2. kontzertua* (Chopin), Yulianna Avdeevaren eskutik. Beethovenen eta Mahlerren *Bosgarrenak* ere

# EUSKADIKO ORKESTRA

egongo dira kantoreetan eta, guztira, 28 lanek osatuko dute kontzertuen denboraldi berria.

## Zuzendariak, bakarlariak eta abesbatzak

Orkestrak hainbat artista hartuko ditu berriz ere bere programazioan, baina nabarmentzekoa da hark bakarrik helduko diela hiru programari, bakarlari gonbidaturik gabe; interpretazio-protagonismo handia izango du, beraz, haiei esker.

**ZUZENDARIAK:** Robert Treviñok hasiera eta amaiera emango dio Kontzertu Denboraldiari, eta lau programa jorratuko ditu guztira. Gainerako programetan honako hauen artean banatuko da podiuma: Roberto Fores, Dinis Sousa, Roderick Cox, Christoph-Matthias Mueller eta Karel Mark Chichon; lehen aldiz arituko dira guztiak Euskadiko Orkestra zuzentzen. Zuzendarien zerrenda osatuko du, halaber, Pablo Gonzalez espainiarrak.

**BAKARLARIAK:** Atal honetan lehen aldiz hartuko ditugu Alexandre Tharaud (pianoa) eta Anne Gastinel (biolontxelo). Berriz gurekin egongo dira Alexei Volodin eta Yulianna Avdeeva (pianoa), bai eta Alena Baeva eta Frank Peter Zimmermann (biolina) ere. Ahotsei dagokienez, lehenik Jone Martinez arituko da, eta, haren ondotik, Carlos Mena tenorra eta Javier Franco baritonoa. Hiru solista horiek abestuko dute, Donostiako Orfeoiarekin batera, Carl Orffen *Carmina Burana*.

**ABESBATZAK:** Jaialdi eta abarretako emanaldi batzuetan batera aritu bagara ere, abonu-denboraldian lehen aldiz hartuko ditugu Easo Gazte eta Easo Eskolania. *Ghost Songs* lanaren euskarazko bertsioaren estreinaldiaz arduratuko dira: *Mamu Kantak*. Donostiako Orfeoiak, haren 125. urteurrenean, orkestrarekin batera interpretatuko du *Carmina Burana* lana.

## ORKESTRAREN BESTE JARDUERA BATZUK

### Poloniako bira

Euskadiko Orkestra 2020ko martxoaren 9an atera zen azkenekoz nazioartera, erabateko itxialdia baino lehentxeago. Iaz bertan behera utzi behar izan zuen Salzburgorako bidaia, Austriaren ustekabeko itxialdiaren ondorioz, eta kontzertu horiek 2024ko otsailerako geroratu ziren. Baina, hori baino lehen, Beethoven Jaialdiaren gonbidapenaren berri eman behar dugu. Polonian egiten da jaialdi hori, eta 2023ko

# EUSKADIKO ORKESTRA

martxoan joango da hara orkestra. Bira horretan hiri hauek daude: Krakovia, Varsovia, Katowice eta Wroclaw.

## Grabazioak

Kontzertu-jarduera biziarekin batera, asmo handiko grabazio-proiektu batean murgilduta dago orkestra. Denboraldi honetan Maurice Ravelen orkestra-lanen bigarren bolumena nabarmenduko da. Euskadiko Orkestrak Ondine diskoetxearekin eta Robert Treviño zuzendariarekin hasitako bideari jarraituko dio. *Ravel* eta *Americascapes* egin ondotik – zeinak oso kritika onak eta sariak jasotzen ari baitira oraindik izenik handieneko hedabide espezializatuen aldetik (*Gramophone, France Musique, BBC Music Magazine, Diapason, The New Yorker...*)–, bigarren *Ravel* bat baieztatuta dago. Grabazioa erregistratuta dago jada, eta udaren bururako dago aurreikusia nazioartean kaleratzea.

## Proiektu partekatuak

Orkestrak eutsi egingo die aurretik zituen konpromisoei, hala nola **ABAO Bilbao Operaren** denboraldiarekin, **Bilboko Musika-Músicarekin**, **BBVA Fundazioaren Ezagutzaren Mugak Sarien** galarekin, **Donostiako Musika Hamabostaldiarekin** eta **Musikasterekin**. Eta atzera egingo du, pandemiaren ondorioz bi urte bertan behera utzi ondotik, belodromoan **Donostia Zinemaldiaren** eskutik egin ohi duen soinu-banden kontzertua. Konpromisoetara zita berriak gehitu ditu, halaber: **Viralgen**, **Donostiako Orfeoien** bazkideen kontzertua, **EITBren** 40. urteurrena eta **El Diario Vascoren** Eguberrietako kontzertua.

**Miramongo Matinéeak** eta **Musika Gela** zikloak, berriz, geroago aurkeztuko dira.

## ABONUAK ETA SARRERAK

### Abonuak salgai ekainaren 15etik aurrera

Ikusle-kopuruaren murrizketak kenduta, heldu ahal diogu Kontzertu Denboraldirako abonu berrien kudeaketari. Oraingo abonatuak berritzeko aldiaren ondotik, abonu berriak salgai jarriko dira ekainaren 15etik aurrera. Erreserba helbide honen bidez egin daiteke: [euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus). Abonuak eskaera jaso ahala kudeatuko dira. Abonuek 80 eurotik 235 eurora arteko salneurria dute 10 kontzerturako.

# EUSKADIKO ORKESTRA

Sarrera solteak salgai irailaren 1etik aurrera

Sarrera guztiak salgai egongo dira irailaren 1etik aurrera [euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus) helbidean, bai eta auditoriumen webguneetan eta txarteldegietan ere.

## MEZENASGOA

Euskadiko Orkestrak, gizartean oso beharrezkoa den kultura-tresna delako uste osoa izanik, ikusleekin lotura izateko tresna berri bat abiarazi du mezenasgoaren bitartez. Hori horrela, herri-proiektu kultural honen garapena lagundu nahi duten pertsonak aukera izango dute beren **ekarpenen** bitartez hala egiteko.

Mezenasgoa etorkizuneko tresna beharrezko bat da, administrazio publikoek diruz laguntzeko politiken osagarria, eta kultura eta gizartea laguntzeko eta garatzeko bitarteko bilakatuko da aurrerantzean. Orkestrari egindako ekarpenek, haien modalitatea dena dela, **kenkari fiskalerako** aukera emango dute. Informazio gehiago hemen: [euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

## ESKER ONAK

Azkenik, orkestrak bere jardueren garapenean parte hartzen duten erakunde guztien laguntza eta babesak eskertu nahi du: abonatuak eta ikusleak oro har, erakunde babesleak eta laguntzaileak, kultur eragileak, hedabideak eta abarrei, Euskadiko Orkestraren jarduerak ahalbidetzen baitute.

# EUSKADIKO ORKESTRA

---

BEREN BABESA DUGU ^ NOS APOYAN

---



---

**EL CORREO**

**EL DIARIO VASCO**



**SEIZ**

